

## 1. Adibidea:

Julen Mendikute taberna baten jabe da Debako hondartzatik gertu. 2022ko azaroaren 1ean TicketBAI faktura sistema erabiltzen hasi beharko du. 2021an horretarako prestatzen hasi da, tabernako kutxa erregistratzaileak moldatu behar izan ditu, eta behar duen software-a bereganatu. Guztira 1.200 euro behar izan ditu egokitze honetarako.

2020ko errenta aitortpenean ez zuen TicketBAI ezarpena sustatzeko kenkaririk erabili, izan ere, gastu eta inbertsioak 2021ean egin ditu. KTB ereduari esker orain eskatu dezake inbertsio eta gastu horiei dagokien kenkariaren itzulketa, 2022ko errenta kanpainaren zain egon gabe.

Kenkaria aurreratzeko zenbait datu jakin behar ditugu araudiak eskatzen dituen mugak kalkulatu eta kontutan hartzeko.

Mugak kenkariaren oinarrian, bietatik txikiena:

- Muga orokorra: 5.000 euro.
- Muga aldakorra: 2019 ekitaldiko sarreraren 1%, baina gutxienez 1.500 euro.

Mugak KTB ereduan egiteko itzulketan:

- Ekitaldiko jarduera ekonomikoaren emaitza x urteko errenta aitortpenaren batezbesteko zerga tasa.
- Ekitaldiko kuota likidoa.

Datu hauek ezagututa Julenek KTB ereduan jaso dezaken itzulketa kalkulatu dugu:

Zergabidea plataformaren bidez Julenek KTB ereduaren aitortpen bat sortzen duenean, programak kenkaria kalkulatzeko behar diren datu guztiak emango dizkio, egindako inbertsio eta gastuen zenbatekoa izan ezik, zergadunak beti bete beharko baitu. Halaber, beharrezkoa izanez gero, negozio zifraren zenbateko garbiari dagokion laukian emandako datua aldatzeko aukera izango du:

- Inbertsioak eta egindako gastuak (01 laukia): lauki honetan inbertsio GUZTIEN zenbatekoa eta egindako gastuak sartu behar dira. Zenbateko horretan sartuko dira, halaber, aurretik aurkeztutako errenta-aitortpenetan edo KTB ereduetan sartutako inbertsioak eta gastuak. Gure kasuan, Julenek 1.200 euro kontsignatu beharko ditu.

### Kenkariaren kalkulua

? [01] Egindako inbertsioak eta gastuak \*

1.200,00 €

-Negozio zifraren zenbateko garbia: Gorago adierazi den bezala, Kenkari-oinarriaren mugetako bat (03 laukia) negozio zifraren zenbateko garbiaren (NZZG) araberakoa da. Programak 2019ko errenta-aitortpenetik hartuko du NZZG, edo ondoren aurkeztutako lehen errenta-aitortpenetik, 2019koa aurkeztu ez bada edo bertan jardueren errendimenduak sartu ez badira. Erabiltzaileak NZZG alda dezake, zenbatekoa zuzena ez dela uste bada. Adibidez, aldatu egin beharko da jarduera ekitaldi horretan hasi denean eta urtebetera igo beharko da.

Julenek ez zuen inolako jarduera ekonomikorik garatzen 2019ko ekitaldian, 2020ko urtarrilaren 1ean hasi zuen. Horregatik, KTB ereduan automatikoki islatuko da 2020ko NZZG, kasu honetan 130.000 eurokoa izan zena; zenbatekoa zuzena bada, ez da beharrezkoa izango aldatzea.

Negozio zifraren %1 1.500 eurotik beherakoa da; beraz, Julenen kenkari oinarriaren muga zenbateko hori izango da.

**[03] Muga aldakorra (bi hauetan handiena: negozio zifraren zenbateko garbiaren %1 edo 1.500.00)**

1.500,00 €

**?** Negozio zifraren zenbateko garbia \*

130.000,00 €

Baieztatu beharreko datua (Irakurri laguntza)

Sortutako kenkaria 720 eurokoa da. Aurreko ekitaldietan eta beste KTB eredu batzuetan aplikatutako kenkariak izan balitu, dagozkien laukietan agertuko lirateke, eta, hala badagokio, aurreratu daitekeen kenkariaren zenbatekotik deskontatuko lirateke.

Beheko laukian aurreko lau ekitaldietako bakoitzari dagozkion datuak jasotzen dira, ekitaldi bakoitzean kenkariaren muga kalkulatzeko: jardueraren etekin garbia batez besteko zerga tasarekin biderkatuta.

Julenen kasuan, 2020ko zutabeko datuak baino ez dira ageri, aurreko ekitaldietan ez baitzuen jarduera ekonomikorik garatu.

Kalkulu horien arabera Julenek 720 euroko itzulketa lortuko du. KTB eredua 2021eko azaroan aurkeztuko du, eta abenduko lehenengo hamabostaldian 720 euro jasoko ditu.

<b>Aurreratu daiteken kenkaria</b>						
1	Inbertsio eta gastuak					1.200
2	Muga orokorra					5.000
3	Muga aldakorra (2019ko eragiketa bolumenaren 1% edo 1.500€)					1.500
	Eragiketa bolumena	130.000				
	Eragiketa bolumena x 1%	1.300				
4	<b>Kenkariaren oinarria</b> (1, 2 y 3tik txikiena)					1.200
5	Sortutako kenkaria (60% x 4)					720
6	<b>Dagoeneko erabilitako kenkaria</b> (7+8+9)					0
7	2020ko errenta aitortpena					
8	2021eko errenta aitortpena					
9	Beste KTB ereduan					
10	Aurreratu daiteken kenkaria (5-6)					720
<b>KTBn itzulketa</b>						
	Errenta aitortpena	2020	2019	2018	2017	
11	Jarduera ekonomikoaren etekin garbia	12.000				
12	Ekitaldiko batzbesteko zerga tasa	26%				
13	Jarduerari dagokion kuota (11x12)	3.120				
14	Kuota likidoa	1.950				
15	Kenkaria erabiltzeko muga (13 edo 14 txikiena)	1.950				<b>Batura 16 - Itzulketa</b>
16	<b>Itzuliko den aurreratutako kenkaria</b>	720				<b>720</b>
17	<b>Etorkizuneko errenta aitortpenetan aplikatzeko kenkaria (10 - Batura 16)</b>					0

## 2. adibidea:

Mariasun Larrartek Sorian bere ikasketak amaitu ondoren 2018tik Tolosan ari da fisioterapeuta gisa, eta hurrengo 2022ko irailaren 1ean TicketBAI faktura sistema erabiltzen hasi beharko du. 2020an horretarako fakturak egokitzeko software erosi du, wifia jarri du bulegoan eta tableta eta ticket inprimagailua erosi ditu 1.100 euro ordainduta. 2020ko errentako aitortopenean TicketBAI ezartzeko kenkaria aplikatu zuen (30%).

Gainera, 2022ko otsailaren 2an Ticket Bai sistema erabiltzeko beharrezko softwarea erosi du, eta horrek 600 euroko kostua izan du. Orain ohartu da TicketBAI sistema 2022ko abuztuaren 1a baino lehenago martxan jarrita kenkaria 60%ra igo daitekeela, eta hori lortu nahian 2022ko martxoaren 1etik aurrera sistema berria erabiltzen hastea erabaki du.

Mariasunek, ez du zergatik 2021eko errenta aitortpena aurkeztera itxaron behar, 2022ko otsailean egindako inbertsioaren gaineko % 60ko kenkaria eta 2020an egindako inbertsioaren gaineko % 30eko kenkari gehigarriaz baliatu ahal izateko. 2022ko otsaileko inbertsioari dagokion kenkaria eta 2020ko aitortopenean erabili ez zuen kenkaria, 2020ko ekitaldian bertan eta aurreko 3 urtetako aitortpenetan aplikatu ditzake eta kopuru horren itzulketa zuzena lortu. Horretarako KTB eredia erabiliko du, Zergabidearen bitartez aurkeztu daitekeena.

Mariasunek egindako inbertsio eta gastuei dagokien laukian 1.700 euro sartu beharko ditu, 2020an eta 2022an egindako inbertsioak batuz.

### Kenkariaren kalkulua

🔍 [01] Egindako inbertsioak eta gastuak \*

1.700,00 €

Negozio-zifraren zenbateko garbiaren laukian programak 60.000 euroko zenbatekoa islatuko du automatikoki, lehen adierazi den bezala, eta beharrezkoa balitz, zenbateko hori doitu ahal izango litzateke.

[03] Muga aldakorra (bi hauetan handiena: negozio zifraren zenbateko garbiaren %1 edo 1.500.00)

1.500,00 €

🔍 Negozio zifraren zenbateko garbia \*

60.000,00 €

Baiezatu beharreko datua (Irakurri laguntza)

Negozio zifraren %1 1.500 eurotik beherakoa da; beraz, Mariasunen kenkari oinarriaren muga zenbateko hori izango da.

Sortutako kenkaria 900 eurokoa da. Zenbateko horretatik programak deskontatu egin du 2020ko ekitaldiko errenta-aitortpenean aplikatutako kenkaria, 180 eurokoa izan baitzen. Horrela, 720 eurotan kalkulatu da aurreratu beharreko kenkaria.